



Hiru lurrikarak Italiako erdigunean



Amatricen, Accumoli eta Arquata del Tronto herrietan, besteak beste, 297 hildako eragin zituen lurrikararik bi hilabetera, beste hiru sismok Italiako erdigunea astindu zuten berriz ere, izua biztanleen artean eraginda.

Ehunka lagunek etxetik kanpo igaro behar izan zuten asteazkeneko gaua, Italiako erdigunea astindu zuten lurrikaren ondorioek behartuta, eta kanpadendetan egun asko egon behar ez izatea eskatu diote Matteo Renzi.

Babes Zibileko kideek aterpeetara eta behin-behineko zentroetara eramane zituzten Markak izeneko eskualdeko biztanleak, gaua igaro ahal izateko, 5'4, 5'9 eta 4'6 graduko lurrikarek herrialdea astindu eta gero.

Gamesak kontratu handia sinatu du Indian

Gamesak Indian sekula lortu duen kontratu handiena sinatu du Atria Power sustatzailearekin, bi eguzki energia planta eraikitzeko Indian.

Eguzkiaren energia aprobetxatuz 90 eta 40 megawatt sortuko dituzten bi planta egingo ditu Karnataka eta Andhra Pradesh eskualdeetan, India hegoaldean.

UPV/EHUK XVI. Zientzia Astea antolatu du

Ume, gazte zein helduek zientzia lanbide duten profesionalekin zientzia ikusi, entzun, sentitu eta horretaz berba egiteko aukera izango dute 2tik 6ra UPV/EHUK antolatutako XVI. Zientzia Astea.

Zientzia Astea zer den? Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren astea da, eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak antolatzen du, inguruan dutenari buruz jakin-mina duten guztiak –gazteek zein helduek, umeez zein nerabeek– aukera izan dezaten zientzia lanbide dutenekin zientzia ikusi, entzun, sentitu eta horretaz berba egiteko.

Tailerrak, stand zientifikoak, ibilbide didaktikoak, erakusketak, lehiaketak, janari-dastatzeak, irteerak, bisita gidatuak eta hamaika gauza gehiago aurkituko dituzu Bilboko Bizkaia Aretoan, Donostiako Kursalen eta Vitoria-Gasteizko Bibat Museoa, azaroaren 2tik 6ra bitartean, XVI. Zientzia Astea.

Jardunaldietan, 48 stand eta 86 jarduera eskainiko dizkiete parte-hartzaileei, jakin-min handiena dutenek zientzia arloko hainbat gairen inguruan duten jakin-mina ase dezaten. Besteak beste, horretan interesa dutenek behaketa astronomikoak egin ahalko dituzte Espazio Gelako teleskopioak baliatuz. Halaber, bisitariak esperimenduak ikusteko eta egiteko aukera izango dute, eta UPV/EHU n egiten diren ikerketen berri jasotzeko aukera izango dute.

Barakaldon ere zientzia jarduerak eskura

Barakaldok ere zientzia jarduerak antolatu ditu. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Azoka hone egunik garrantzitsuena azaroaren 5a izango da, 10:30etik 14:30era bitartean, Clara Campoamor zentroan. Jai-ekitaldi hau doan eta herritarra izango da, adin guztietako jendeari begirakoa, baina bereziki, 6 urtetik gorakoei.



ORDU ALDAKETA

Igande goizaldean, ordubete atzeratuko dira ordulariak eta 03:00etan 02:00ak izango dira, udako ordutegiari amaiera eman eta negukoan sartzeko. Europar Batasuneko herrialde guztiak daude behartuta ordu aldaketa egitera energia kontsumoa % 5 murrizteko, baina oso eztabaditsua izan da aurrean Espainiako hainbat erkidego autonomotan.



Hilen errautsak zabaldu eta etxean gordetzea debekatu du Eliza Katolikoak



Urriaren 25 honetatik, hilen errautsak zabaltzeko edota etxean gordetzeko debekua ezarri die katolikoei Frantzisko aita santuak.

Azken urteotan asko ugaritu dira hildakoen gorpuak erraustu eta errautsok aineratzea edota kutxa batean etxean gordetzea erabakitzen dutenak. Aspaldi esan zuen Eliza katolikoak jarduera hori "elizaren fedearen kontrakoa" zela, baina orain beren-beregi debekatu du dokumentu batean.

Agirian irakur daitekeenez, elizak nahiago du gorpuak hobiratzea. Erraustea onartzen badu ere, espresuki debekatu du errautsak zabaltzea. Are, senitartekoek aukera horren alde egingo balute, abadeak elizkizuna egiteari uko egin beharko lioke".

"Debekatuta dago errautsak aineratzea, lurrera edo uretara botatzea, eta oroitzapenezko bitxi edo artikulua bihurtzea" ageri da dokumentuan.

Are, ohartarazpena egin du: "Gorpua erraustu ostean, errautsak naturan askatzeko asmoa dutenei ez diete elizkizuna egin behar".

Etxean ere ezin dira gorde, eta Eliza katolikoak "kasu larrienei eta salbuespeneko baldintzetan daudenei" bakarrik aitortu die eskubide hori.

Eliza Katolikoaren ustez, errautsak "leku sakratu batean gorde behar dira, hau da, hilerrian, elizetan edota agintari eklesiastikoek beren-beregi paratutako gunen batean".

Aralarren artzainen bordetara iristeko pistak eraiki behar al dira?

Aralar mendiaren Gipuzkoa aldean, Tolosaldea eta Goierriko herritan, eztabaida bizia piztu da artzain eta ganaduzaleen txaboletara iristeko eraiki nahi diren bide edo pisten inguruan. Sektorearen, artzain eta ganaduzaleen aspaldiko eskaria da hori baina, udal guztiek ez dute proiektua egoki ikusten eta talde ekologistek, azpiegitura berriek sor ditzaketan kalteez ohartarazi dute.

Micheal Eric, jaun eta jabe



Bilbao Basketek Eurocupeko bigarren partida jokatu zuen Bilbao Arena pabiloian, ligaxkako hirugarren jardunaldian. Carles Duranen gizonak sufritutako garaipena eskuratu zuten 80-76 Lietuvos Rytasen aurka, batez ere, azken segundoetan Micheal Ericen egindako bi jokaldiei esker.



Fitxa teknikoa:

80 - Dominion Bilbao Basket (22+17+20+21): Borg (2), Bamforth (14), Mumburu (19), Nikolic (7) eta Eric (10) -hasierako taldea-Salgado, Lapornik (3), Todorovic (6), Herville (10) eta Buva (9).

76 - Lietuvos Rytas Vilnius (13+18+25+20): Broadus, Logan (19), Jomantas (10), Gordon (16) eta Lapeta (3) -hasierako taldea-Fisher (10), Giedraitis (2), Jucikas (2) eta Gudaitis (14).

EGURALDIA Asteburu honetan aldatzen da ordua, baina eguraldiak aldaketa handirik ez digu ekarriko. Egia esan, gauden garairako eguraldi paregabea espero da asteburu luze osoan zehar, hau da, hurrengo asteko asteartera arte. Giro egonkorra, atsegina, eta oro har eguzkitsua izango dugu datozen 4-5 egunetan. Duda bakarra itsasoko lainoa sortuko den ala ez izango den, behintzat momentu batzutan. Hego haizea ibiliko da agintari, baina indar gutxirekin eta horrela brisa freskoa ibili daiteke ia egunero, eguerdi parte eta arratsaldeko lehen orduetan. Dena den temperaturak oso altuak garairako, 20 eta 25 °C bitartean.

Egun guztiak antzekoak izango dira, beraz denak zaku berean sartuko genituzke. Egun oso atseginak, beharbada lainoa ere sartzen direnean freskotasuna nabarituko da..

Eguzkiarekin eta tenperatura epelekin esango diogu agur urriari. Egoera egonkor honek asterartera arte iraungo du eta hortik aurrera zihurgabetasun handia dago. Ordura arte, ia udaberrikoak ematen duten egun hauetaz gozatu.





Erne: pailazoak!

Hilaren 31n Halloween jaia ospatuko da munduko herrialde askotan. Data esanguratsu hori gerturaten ari denean, “pailazo hiltzaileen” edo “pailazo beldurgarrien” fenomenoak mugak gainditu ditu eta benetako arazoa bihurtu da Europa osoan.

Azken asteotan puntaren puntan dagoen moda bihurtu da. Dena den, fenomeno hori ez

da berria, izan ere, pailazoz mozarrotutako pertsonak duela bi urte Frantzia hasi ziren oinezkoei zein gidariei txantxak egiten edota herritarrak ikaratzen. Geroago, mozarro horiekin egindako txantxak YouTubera igotzen zituzten.

Aurten Ameriketako Estatu Batuetan agertu dira lehenbizi, baina fenomeno horrek mugak gainditu ditu arrapaladan eta herritarrak beldurtzea helburu duten pailazoak joan-etorrian dabilta Europa osoan zehar. Orain, “pailazo hiltzaileen” txantxa segurtasun kontua bilakatu da eta atxilotuak ere izan dira.

Gizartean hedatu den beldur handiaren aurrean, Espainiako Polizia Nazionalak “lasaitasunezko” mezua bidali die herritarrei. Izan ere, sare sozialen bidez Zaragozan (Aragoi), Paternan (Valentzia), Badajozen (Extremadura), Gasteizen eta beste hiri batzuetan pailazoz mozarrotutako pertsonak agertu direla zabaldu dute erabiltzaile askok.

Arrazoi horregatik, sare sozialetan irekita dauden profilak ikertzen ari dituela jakinarazi du Poliziak, kontu horiek sortu dituzten erabiltzaileek deliturik egin duten argitzeko.

Agintariek ez dute fenomeno hori azaldu dezakeen azalpenik aurkitu, baina pailazoz mozarrotzeko fenomenoak 2014an hasi zenean, DM Pranks erabiltzaileak YouTubera igotako bideoak aztertu zituzten.

Facebooken, 670.000 jarraitzaile baino gehiago ditu DM Pranks kontuak eta erabiltzaile askok partekatu dituzte bideo horiek. Era berean, DmPranksProductions erabiltzaileak igotako bideoetan ezkutuko kamerak erabiliz oinezkoei zein gidariei egindako txantxak ikus daitezke. 2013tik, 600 milioi bisita lortu ditu.

Berpiztea 2016an

Jendea beldurtzeko asmoa zuen lehen pailazoa abuztuan agertu zen Greenvillen, Hego Carolinan (AEB). Kasu horretan, pailazoz mozarrotutako pertsona batek haurrak eta gazteak ikaratu zituen, baso baten ondoan.

Hasieran, Rob Zombie zuzendariaren “31” pelikularen promozio bat izan zitekeela esan zuten.

Urriaren 6an, Kanadan, Torontoko Poliziak ikerketa bat hasi zuen. Izan ere, “Clown in the 6” izeneko talde batek hiri horretako eskola batzuei mehatxu egin zien sare sozialen bidez.

Azken asteotan, Europako hiri desberdinetan izan diren kasu ugari ezagutu dira. Alemanian eta Suedian esaterako, “pailazo hiltzaileek” labanak, aizkorak edota motozerrak erabili zituzten oinezkoak beldurtzeko.

Orain arte ezagutu den kasurik larrienetakoa urriaren erdialdean izan zen Varbergen, Suediako mendebaldean. Pailazoz mozarrotutako gizon batek gazte bati sastakaia sartu zion sorbaldan eta, hitzik esan gabe, bertatik ihes egin zuen.

Udalak Halloween ospatzeko argazki-lehiaketa antolatu du



Zeren beldur zara? Izenburu honekin hasi zen astelehenean Halloween jaiaren inguruan argazki lehiaketa. Barakaldoko udalak hiritarren beldurrak sarean ikusgai jar ditzaten nahi du. Lehiaketa azaroaren lehen astearte, amaituko da eta parte hartzeko betekizunak honakoak dira: egileak 16 urte baino gehiago izatea, argazkia Barakaldon ateratakoa izatea eta Halloween jaiari buruzkoa izatea.

Sarre estatuan, Frantziak eta Luxenburgok bat egiten duten tokian, pailazoz mozorrotutako pertsona batek metroan zihoazen bidaiariak ikaratu zituen aizto batekin. Bertatik jaitsi zenean, jendea beldurtzen jarraitu zuen. Joan den asteburuan txirringulak bat zauritu zen Alemaniako Akisgran hirian, pailazo batek ezustekoa eman eta lurrera erori ostean. Beste pailazo batek, aldiz, auto gidari bat ikaratu zien Frederiksværk-en, Kopenhage iparraldean (Danimarka).

Herritarrei beldurra sortzen dien fenomeno horren ondorioz, salaketak ugaritu dira. Gainera, pertsona asko pailazo horiei aurre egiten hasi dira. Astelehen honetan, Berlinen, pailazoz mozorrotutako 16 urteko gaztetxo bati labankada bat eman zion 14 urteko mutiko batek, hura beldurtzen saiatu baitzen. Beste toki batzuetan, gainera, Utah-n esaterako (AEBko erdi-mendebaldeko estatua), pailazoei tiro egitea debekatuta dagoela gogoratu behar izan die herritarrei Poliziak.

Gauzak horrela, pailazo profesionalek baita beldurrezko eleberrien idazleek ere, "pailazo hiltzaileen" fenomenoaren kontra agertu dira.

Animen Gaua

Animen edo Arimen Gaua hildakoen omenez azaroaren hasieran ospatzen diren jaien barnean kokatu behar dugu. Santu Guztien Eguna edo Domu Santu eguna azaroaren bata izaten da eta Animen Gaua bezperan ospatzen da. Azaroaren bian Hilan Eguna ospatzen da.

Santu Guztien Eguna fededunek santu baten jaieguna huts egin izana barkatzeko jaieguna da berez, eta egun horretan, Euskal Herri osoan, sendiko hilak oroitzeko hilerrietara joateko ohitura dago. Hilan Eguna edo Animen Eguna Purgatorioan dauden arimen aldeko ospakizuna da.

Urriaren 31n Arimen Gaua ospatzeko ohitura txoko askotan oso zabaldua zegoen oraindik duela hamarkada batzuk. Iluntzean haur eta gazteak bide bazterretan, kalabaza hustuetan kandelak ezkutatzear gain, etxez etxe eske ibiltzen ziren, neguan ospatzen diren beste jai ezagunetan bezala.

Jatorria

Hilan inguruko ospakizun hauek, gaur egun erlijio katolikoarekin batzen baditugu ere, bere jatorria zeltek ospatutako Samhain jaietan kokatu ohi da. Jai haren izena antzinako irlandetatik dator eta «udaren bukaera» esan nahi du. Uzta biltzeko sasoiaren amaiera ospatzeko jai zen, bai eta iluntasunarekin hasten zen zelten urte berriaren ospakizuna ere. Trantsizio jai da, beraz (urte batetik bestera igarotzeko jai), bai eta beste mundurako irekiera ere.

Antzinako Erromak zelden lurraldeak okupatu zituenean, jai euren kulturara asimilatu zuen. Berez Erroman urriaren bukaeran eta azaroaren hasieran uzta jaialdiak antolatzen ziren. Erlijio katolikoak ere jai paganoak bereganatzen saiatu zen, eta, San Joan egunarekin eta Gabonekin egin zuen bezala, Santu Guztien Egunarekin lotu zuen. Santu Guztien Eguna lehen aldiz 699an ospatu zen, maiatzaren 13an.

Halloween

Anglosaxoi herrialdeetan, zelden eragina dela medio, Halloween jai ezaguna ospatzen da Santu Guztien Egunaren bezperan. Baina egungo Halloweengo ohiturek aldaketa handiak izan dituzte, eta, batez ere, Ipar Amerikan erlijioarekin harremanekin ez duen mozorro-jai garrantzitsu bat bihurtu da. Ospe hau komertzioaren publizitateak eta zineak eman dion bultzadarengatik izan da. Ipar Amerikara irlandar migratzaileek eraman zuten ohitura XIX. mendean.

Sorginen gaua ere deitzen dioten jai honen ikur bereizgarrienetako bat kuia edo kalabaza huts argiztatuak jartzearena da. Ohitura hau, irlandar herri sinesmenak dionez, *Jack* izeneko irlandarrari gertatutako elezahar batetik dator (*Jack-o-lantern*).

Beste ohitua bat umeak mozorro beldurgarriekin auzoko etxeetatik eskean aritzearena da. Etxe batera eskean joaten direnean "*trick or treat*" (trikimailua edo tratua) esaten dute, eta etxeokok goxokiak ematen dizkiote umei.

